



Kilometroak erosi dituzten erakundeek petoak jaso zituzten galan.

Aurkezpen elegantea

Urnietako muga hartuko du lekukoa Lasarte-Oriak ostegunean arratsaldeko 14:45ean eta Zubietan utziko du

Korrikaren 16. edizioaren aurkezpena egiteko gala ederra antolatu zuen osteguneak Muntteri-AEK euskaltegiak herriko zenbait elkarte eta herritarrekin batera. Jende ugari bildu zen kulturetxera bertso, kantu eta antzerkiak gozatzeko asmoz. Gaurko TXINTXARRIn gehigarri berezia egin dugu Korrika dela eta, beraz galako informazioa duzue barruko orrietan. •



Euskara ikasten ari diren hiru kanpotarrekin aritu gara solasean /10

Kontzertu liriko arrakastatsua

Larunbat iluntzean emanaldi ederra eskaini zuten Aurora Parra soprano kubatarra eta Arkaitz Mendoza pianojole andoaindarrak. Bertaratutakoek ederki gozatu zuten emanaldiaz eta txalo zaparrada ugarirekin eskertu zuten. Aurora Parra gainera, opera abesteaz gain, antzeztu ere egin zituen kanta hobeto ulertzeko. Amaieran publikoak abesti gehiago eskatu eta bikoteak *La Tarantula* eta *Cecilia Valdes* eskaini zituzten amaitzeko. •



KIROLA ■ 2

Buruntzaldeako atletismoko topaketak ospatu ziren larunbat goizean

KULTURA ■ 2

Semblante Andaluz elkarteak XVII. urteurrena ospatu du asteburuan

KULTURA ■ 3

Kontzertu eta emanaldiz beteriko asteburua

GURUTZETA SAGARDOTEGIA

KORRIKAREN ALDE!

Zatoz txotx egitera!

SAGARDOA ZER DEN BALDIN BADAKIZU, EDERKI ANTZEMANGO DIOZU GUREARI

TRADIZIOA ETA BERRIKUNTZA, SAGARDO NATURELEAN

16. ongi etorri

Oialume bidea 63 • Tel.: 943 552242 • Faxa: 943 552292 • ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)
gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com



GAZTEIDEIAK

19 ideia aurkeztu dira Gazteria eta Festak saileko ekimenera

Lasarte-Oriako gazteen artean parte-hartzea eta sormena bultzatzea eta, gazteentzako ekimenak aurkeztuz, komunitatearen garapenean inplikatzeko da Udaleko Gazteria eta Festetako sailak martxan jarri duen Gazteideiak lehiaketaren helburua.

Ekimenak aurkezteko epea amaituta, hamar parte-hartzailek 19 ideia aurkeztu dituzte. Jesus Maria Zaballos saileko buruaren hitzetan, "udalerrian, momentu honetan, 14 eta 30 urte arteko 3.050 gazte gaude, eta guztiek jaso dute posta bidezko gonbidapena lehiaketan parte hartzeko, baina hamar beste-rik ez dira animatu".

"Gazteria eta Festetako sailaren nahia da gazteak baloratzea eta beren iritzia kontuan hartzea, baina hau bezalako ekimen parte-hartzaileak planteatzen ditugunean inplikazio txikia topatzen dugu", gaineratu du.

"Ideien helburuari dagokionez, Lasarte-Oriako populazio gaztearengan zuzeneko eragina izan dezaketena edo hiriaren eraikuntzan gazteek parte har dezaten ahalbidetuko dutenak behar zuten izan. Parte-hartzaile guztiek ez dute horrela ulertu, baina dena den, proposamen guztiak kontuan hartuko dira", azaldu du Zaballosek.

Aurkeztutako proposamenak epaimahaiak aztertuko ditu orain eta bost ideiarik onenek 100 euroko saria jasoko dute bakoitzak. Ondoren, ideia sarituak praktikan jarriko ditu Gazteria eta Festetako sailak.

"Gazteideiak lehiaketa proiektu ona da eta horrekin jarraitzeko asmoa dugu, hurrengo edizioetan parte-hartzea gehitu dadin espero dugularik," aipatu du Gazteria eta Festetako saileko buruak. •

Ekitaldiz betetako urteurrena



Ezkerreko irudian *Amigos del Sur* taldearen emanaldia eta eskuinean berriz atzo eginekiko faralae jantzien erakusketa *Semblante Rociero* abesbatzarekin.

Semblante Andaluz elkarteak bere XVII. urteurrena ospatu du asteburu honetan hainbat ekitaldi antolatuaz.

Ospakizunak asteazkenean hasi ziren Pacual Gonzalez eta Cantores de Hisspalisen *Sevilla reza cantando* filmaren emanaldiarekin.

Ostiralean, Ander Izagirre donostiarrak *Cuidadores del Mundo* diaporama eskaini zuen. Bertan, inguruko mendi, iturri, bideak... zaintzen dituzten herritar anoni-
moak goraiatzeko ditu. Honen ostean luntx eder batez gozatu zuten bertarutat-



koak. Larunbatean ere modu berean hasi ziren, bazkide eta gonbidatuentzat andaluziako produktu tipikoak dastatzeko aukera izan zuten goizeko luntxean. Arratsaldean berriz, *Amigos del Sur* taldearen emanaldia izan zuten. Hasieran pixka bat kosta bazitzaie-

ere, animatu ziren batzuk dantzara.

Ospakuzunei amaiera emanez, bazkari herrikoia antolatu izan zuten atzo. Sabela ondo bete eta gero faralae jantzien desfilea izan zuten *Semblante Rociero* abesbatza lagun zutelarik. •



Eguraldiak ez bazuen batere lagundu ere, Buruntzaldeko Atletismo Topaketa ospatu zen larunbat goizean Michelingo Kirol Guneako Atletismo pistan. Bertan bildu ziren Urnieta, Usurbil eta Lasarte-Oriako benjaminak LH3 eta LH4 mailak.

Hasiera batean altuera-jauziak egiteko asmoa bazuten ere, eguraldia txarragatik bertan behera utzi behar izan zuten eta beste proba batzuk antolatu zituzten; pisu jaurtitiketa eta oztupoekin osatutako korrikako zirkuituxo bat egin zuten hurrek. •

Kirol sailak izaera arrunt eta puntualeko jardueri 15.390 euro eskainiko die

Lasarte-Oriako Udaleko Kirol sailak 15.391,50 euro bideratuko ditu kirol elkar-teen laguntza arruntentzat eta izaera puntuala duten kirol jardueri laguntzeko.

Honela, 8.095,75 eurotako laguntza emango zaie herriko kirol elkarte ezberdi-nei urtean zehar burutzen dituzten ekintzengatik.

Jarduera puntualak

Kirol jarduera puntualentzat bideratutako zenbatekoa, berriz, 7.295,75 eurotako da. Hau Eskuzko Pilotako Herri arteko Txapelketan parte hartzeagatik aurrekusi-tako gastuak, 800 euro, kendu ostean geratutako

kopurua da.

Proposamen ezberdinein puntuazio baremoak aplikatu ondoren, izaera puntualeko jardueri zuzendutako zenba-teko honela banatuta gera-tzen da:

Santa Ana Pala Txapelketa (1.216 euro), Ostadarreko Lasarte-Oria Bai! Kross Herri-koia (2.026,45 euro), Ostada-rreko Pala Txapelketa (1.459,10 euro), Igeriketako Lasarte Saria (1.378,05 euro), Ostadarreko Bolo Tirada (810,70 euro), Buruntzazpi Txirrindulari Eskola (405,45 euro) eta Intzak antolatzen duen Herri Arteko Pilota Txapelketagatik eskatutako diru-laguntza osoa. •

EUSKARAREN ALDE!

16.

- Material elektrikoa
- TB/Hi-Fi
- Argiak
- Instalazio elektrikoak
- Etxetresna elektrikoak

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA

InmoGes Inmobiliaria

Immobilien y Administración de Fincas

16. ongi etorri

EUSKARAREN ALDE!

Kale Nagusia 12-3 Lasarte-Oria Tel.: 943 376662

'Udalak Sorgin Jaiakekin akordiora iristeko borondatea du'

TXINTXARRI

Hala azaldu zuen, Jesus M. Zaballos Gazteria eta Festetako batzorde buruak komunikabideekin izandako bileran.

Azken asteetan, Sorgin Jaiak batzordeak 97ko legea aldatzeko ahaleginen berri eman da TXINTXARRI eta Noticias de Gipuzkoa egunkarian eta, honen harira, Jesus M. Zaballosek "jendeak kalean geratu eta gaiari buruz galdezen dit eta, horregatik, nire ikuspegia eman behar nuela iruditut zait."

Honela, argi utzi nahi du ez dituela txosnak ilegalizatu nahi, ezta desagertarazi nahi ere. "Egoera argitu eta akordiora iritsi nahi dut," esan digu Jesusk.

Honela, lehenengo bileran, Zaballosen hitzetan, 97ko legea aldatzeko eskaera egin zioten Sorgin Jaiak batzorde kideek eta bakoitzak bere aldeetik aldaketa nola egin aztertu behar zutela geratu ziren.

Bigarren bileran, berriz, Sorgin Jaiakeko kideek bere proposamena aurkeztu zuten eta Zaballosek bi aukera eskaini zien, orain arte bezala jarraitu edo, beste elkarte batzuk txosna jarri nahiez gero, 97ko legea ezarri.

"Baina hori kaltegarria litzateke batzordearentzat, izan ere legeak dio elkarrekin bakarrik eskatu ahal dutela txosna jartzea. Eta horregatik, haien onurarako, erregistratzeko esaten genien, era horretara dirulaguntzak ere eskatu ahalko baitzituzten," aitortu zuen Zaballosek.

"Bilera horren ostean, ni zai geratu nintzen haien erantzuna jakiteko eta komunikabideen bidez jakin nuen sinadura bilketarena," adierazi zuen Gazteria eta Festetako buruak.

"Nik ez nuen harremanak puskatu zirenik ere uste," atxiki du eta zera azaldu du "ez zen beharrezkoa sinadura bilketa egitea bilera bat izateko. Nahi zutenean hitz egite-



Irudian iazko Sorgin Jaien gunean antolatutako afarietako bat.

ko prest nengoela bazekiten. Horrela izan da orain arte, behintzat"

"Honetaz gain, haiek proposatutako zenbait puntu ezin dira aurrera eraman eta hori jakin arazi diet. Izan ere, haiekin hitz egin eta beste

bilera bat egiteko geratu baikara," aipatu digu.

"Akordiora iristeko borondatea osoa dut, ez Udala edo Sorgin Jaien bermerako, baizik eta herriaren onurarako," adierazi zuen Gazteria eta Festetako batzorde buruak. •

SAN PEDRO PROGRAMA

Aurrezpen handia bideratzen duen hitzarmena

Lasarte-Oriako Udalak eta Zureleku enpresak hitzarmen bat sinatu dute bigarren honek hurrengo San Pedro jaietako programa egiteko.

Enpresa ezberdinekin negoziatu ondoren, Gazteria eta Festetako sailak Zureleku hautatu du.

Hitzarmen honen bidez, joan den urteko programetako aurrekontua %73 murriztuko da. Honek onura ekarriko du lasarteotarrentzat, izan ere, aurrezten den hori beste zerbitzu batzuen gestoria bideratuko baita.

Enpresak maketazio eta edizioa hartuko ditu bere gain eta Udala arduratuko da etxeko txakroak. Guz-tira, 7.500 ale inprimatuko dira.

Gazteria eta Festetako sail-leko lehendakaria den Jesus Maria Zaballosek azaldu duen moduan, "jakin badakigu momentuko egoera ekonomikoan gastu arrunta murriztu behar dela, eta horren eredu da sinatu berri dugun hitzarmen hau." •

Txistularien kalejira eta kontzertua

Atzoko goiza txistularien goiza izan zen. Kalejiran atera ziren herriko txistulariak goizean udaletxeko arkupeetik Brigitatarren komentuan amaitzeko. Bertan Errenteriko Udal Txistu banda zegoen prest kontzertua eskaintzeko. Emanaldi ederra burutu zuen laukoteak, gainera Lasarte-Orian egonik, Isidro Ansorenaren Lasarte (Orripekoa) pieza jo zuten. Bertarantutakoek txalo zaparrada ederrekin eskertu zieten egoniko lana. Ondoren Arrieska-lleta elkartera joan ziren bazkaltzera. •



Josu Izagirre, herriko udal musika eskolako irakaslea, taldeko partaidea da.



Ostiral iluntzean Kepa Martinez de Albenizek zuzentzen duen *Santa Zezilia* abesbatzak kontzertua eskaini zuen Brigitatarren komentuan Danok Kide elkartetik antolatutako IV. Musika Topaketen barruan. Pieza ederrak eskai-

ni zituzten emanaldian: Purcellen *In the midst of life*; Sorozabalen *Maite* edo *Azurzen Loria* udan...

Amiaieran jendea gogoz geratu eta gehiago eskatu zuten Serraten *Cantares* eta *Agur jaunak* abestu zuten. •

MAPFRE FAMILIARRA

- Etxeen aseguruak
- Ibilgailuen aseguruak
- Osasunerako aseguruak eta mediku-aseguruak
- Pertsonen istripuetarako aseguruak
- Nekazaliturismoko aseguruak
- Zaldi eta txakurrentzako aseguruak

AUTONOMOENTZAKO POLIZA KONBINATUAK

MAPFRE ENPRESAK

- Enpresa aseguruak

MAPFRE



Loyarte aseguruak S.L.


EUSKARAREN ALDE!



CAJA MADRIDek delegatutako bulegoa

MAPFRE BIZITZA

- Bizitza-aseguruak
- Erretiro eta aurrezki aseguruak
- Fondo Garantizatuak (erabateko segurtasuna)
- Borondatezko Gizarte Aurreikuspenetarako Entitatea (EPSV-BGAE)



GELTOKI KALEA 8 BEHEA • LASARTE-ORIA • TEL.: 943 360268 • FAXA: 943 360546

Abian da Korrika!

■ Ostegunean aurkeztu zuten aurtengo Korrika kulturetxean
■ Aurkezpeneko galan herriko zenbait elkartek hartu zuten parte

Lehenengo ostegunean hasi zen Ongi Etorri lelopean Euskal Herri osoa zeharkatuko duen Korrika. Gure herria lekukoa hartzeko prestatzen ari da. Lehenengo ekintza Korrika aurkezpen gala izan zen.

Maider Seguiolak aurkeztutako galari, helduen dantza garaikideko taldeak eman zion hasiera. Betagarriren Korrikako abestiak Manuel Lekuona kultur etxeko aretoa bete zuten herritarrek dantzan eta kantuan jarri zituen. Jalgune-ko kideek sagardotegi batera eraman zituzten nazio desberdinetako lagunak euskaldun bezala bataiatuak izateko. Porrotx eta Marimototsek Venezuelako bi

laguntxo, Melani eta Angeli, igo zituzten oholtzara magia egiteko eta Ludotekako haurrek pailazoekin batera Pake-tume eta Maite zaitut kantuak dantzatu eta abestu zituzten.

Arropa desfilea ere egon zen. Herriko gazteak Korrikako arropa eta osagarriak erakutsi zituzten modako ibiltoki bihurtu zen areto eta oholtzan.

Ongi etorri da aurtengo leloa eta David Egizabalek, Bixente Beltranen laguntzaz, guztiei, euskaldun zaharrei, euskaldun berriei, bertakoei eta atzerrikoei Agurra dantzatu zien.

Ane Labakak Unai Muñoa gonbidatu zuen bertsoen bidez Korrika egitera eta eus-



Kilometroa erosi duten erakundeek petoak jaso zituzten Olatz Urdanpilletaren eskutik.



Ostiralean Ohean antzezlan eskaini zen Korrika kulturalaren barruan kulturetxean.

Sagardotegi bat, moda desfilea, magia, dantza garaikidea, bertsoak, abesbatza... denetik izan zen galan

SAN JOSE-OLAIZ



GU KORRIKAREN ALDE!

- Kamioien txasia konpontzeko oinarria.
- Industriako ibilgailuen konponketa.
- Aluminiozko eta burdinazko soldadurak.

Ordutegia: 8:30 - 20:30



LOMBARDINI

IVECO

ZERBITZU OFIZIALA



DIMETAL S.A.

Zirkuitu ibilbidea 6 • 20160 LASARTE-ORIA • Tel.: 943 361857 • Faxa: 943 366508

Aurkezpeneko gala



Gazteek Aretha Franklinen *Think* abestiarekin sasoian daudela erakutsi zuten.



Bixente Beltranek eta David Egizabalek *Agurra* eskaini zuten.

kara ikasten ari diren atzerri-
tarrei ongi etorria eman zien.

Gazteen dantza garaikide-
ko taldeak bere malgutasuna
eta sasoia erakutsi zuten Aret-
ha Franklinen *Think* doinua
dantzatuaz.

Ondoren, apirilaren 2an
osteguna lekukoa hartuko
duten talde desberdinek peto
eta kilometroak jaso zituzten
Olatz Urdanpilleta Lasarte-
Oriako AEKko zuzendariaren
eskutik.

Xumela koruak Oihan bel-
tzian eta Nire aberria kantuak
eskaini zituen eta galari
bukaera emateko, berriro ere
guztiak dantzan eta kantuan,
Porrotx eta Maromototsek
Xumelarekin batera Epoitaita-
ye abestu baitzuten.” •



Saio politta eskaini zuten dantza garaikideko helduen taldeak.



Unai Muñoak eta Ane Labakak kantari jarri zuten auditorioa.



A ze nolako estiloa erakutsi zuten herriko gazteek!



Xumela abesbatzak bertaratutakoen belarriak goxatu ederki zituzten.





**Klinikan %15eko deskontua
implante tratamenduetan**
* Beste deskontuei eta sedazioari ezin zaie
gehitu deskontu hori. Tratamendu berrietarako
eskaintzak 2009/02/01etik 2009/05/01era arte
balio du.

Aldaz Hortz Klinikak tratamendu aurreratuaren
aplikatutako punta puntako teknologia eskaintzen dizu

- inplanteak eta hortz fijoak egun batean
- ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
- "invisalign" ortodontzi ikusezina
- haurrentzako ortodontzi tratamendu prebentiboak eta korrektoreak (Osakidetza-PADI)
- pazientearen irribarra sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
- interesik gabeko finantzazioa 18 hilabete arte

16.
EUSKARAREN ALDE!

Deitu gure zerbitzua ezagutzeko
943 366 377
Ola kalea, 10 San Bartolome, 22
Lasarte-Oria 20160 Elgoibar 20870
www.dentalaldaz.com

AENOR
E
Enpresa
Registrazioa
en 0055-2005



Melanik eta Angelik Porrotx eta Marimototsekin magia egin zuten.



Ludotekako haurrek pailazoekin dantza egin zuten eta Jalguneko kideek emanaldi ederra eskaini zuten.



Ezker Abertzaleak atxikimendua adierazio dio Korrikari.

Ongi etorri Euskal Herri berrira!

Ezker Abertzaleak atxikimendua adierazi dio Korrikari, Badator Korrika!, Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira! Ongi etorri Euskal Herri berrira" izenburua duen bat kaleratuz. Honela hasten da: "Bi urteroko hitzorduari hutsik egin gabe hemen dugu korrika. Erriberako lautada zabalei aurre eginez, gau luzeetan atsedetik hartu gabe, elurte eta euritei aurre eginez... baita herri honen etsaiek ezarritako hamaika oztopo, kontrol eta mugak gaindituz ere, ortzi-mugan Korrikaren lekukoa tipitapa azaltzen zaigu. Eskuz esku igaro den lekukoa, belatnaldi batetik hurrengora... Herri honen bizi nahia sinbolizatzen duen lekukoa; euskara iraun-erazi eta euskaraz bizi nahi duen herriaren sinboloa."

Euskarak aldaketa garaia

bizi dela dio eta aldaketa nora-bide egokian bideratzea euskaldunon esku dagoela; "gure esku dago EHri etorkizuna ziurtatuko dion marko demokratikoa eskuratzea".

Euskararen ofizialtasuna aldarrikatu zuten, "ofizialtasunak euskara Euskal Herriko hizkuntza nazional, berezkoa eta lehentasunezkoa izendatuko du; eta, euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatuko ditu. Bide honetatik hizkuntza-politika berria aplikatzeko aukerari ateak irekiko zaizkio. Bide honetatik soilik lortuko da euskara iraunaraztea".

Lasarte-Oriako Ezker Abertzaleak, urte luze hauetan, AEK-k egindako lana eskertu nahi du eta Lasarte-Oriako herritarrei dei egin die Korrika herrira iristen denean bertan parte hartzeko. •

Bideo Lagunak

Betiko zerbitzua
gure
aholkularitza
onenarekin

Udaberrian ere
eskaintzak!!

16. ongi etorri

EUSKARAREN ALDE !!

TIEN 21ekin RENOVE PLANa ez da bukatu !



Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134 • e-maila: jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

16. ongi etorri

korrika

badator!

denok Tuterara

Tutera-Gasteiz 09 martxoaren 2004. apirilaren 2004

16. ongi etorri

EUSKARAREN ALDE!

INQUIETUD

Neurriak 36tik... 60ra

(943 370 290 Nagusia 49

AUTOESCUELA IZARRA AUTOESKOLA

IKASKUNTZAKO MULTIMEDIA SISTEMA

PROMOZIOA:
%10 DESK. MATRIKULAN
INFORMAZITEZ!

16.

KORRIKAREN ALDE!

Geltoki Kalea, 11
20.160 Lasarte-Oria
Tfno.: 943377005

COPILASARTE

16.

EUSKARAREN ALDE!

- ESTANPAZIOAK
- FAX-ZERBITZUA
- FOTOKOPIAK
- AZALEZTATZEAK
- PLASTIFIKAZIOAK

Kale Nagusia 34 • Tel.: 943 366930 / Faxa: 943 366931 • Lasarte-Oria

DANA ONA

JATETXEA

restaurante@danaona.com

ZUBIETA (HIPODROMOAREN ONDOAN)



• EUSKAL HERRIKO SUKALDARITZA

- JANGELA EGOKI-EGOKIAK, EZKONTZAK, JAUNARTZEAK ETA BESTE EDOZER OSPATZEKO
- ETXeko ESPEZIALITATEA: PARRILAKO ARRINA ETA HARAGIA.

16.

KORRIKAREN ALDE!

TEL.: 943 365347 / 943 361731 • FAXA: 943 366020

SUGATE

Sukaldeak

16. ongi etorri

EUSKARAREN ALDE!



plan renove+%10 desk.

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

vegasa

Beti lehenengo egunean bezala

Pintore kalea 5 • Tel./faxes: 943 361471 • LASARTE-ORIA
www.sugate.net



Ttapi, ttapa, ttapi ttapa... Korrika!

■ Korrika Txikia ostegun goizean ospatuko dute ikastetxeek eta Nagusia berriz, arratsaldeko 14:45ean helduko da

TXINTXARRI

Orain arte, korrika gehienak asteburuan pasa izan dira Lasarte-Oriatik. Agian ordu txikitlan izango zen, baina asteburua izanda, errazagoa zen bazkari edo afari batekin lotzea. Aurten ordea ostegun buruzuri batean igaroko da herrik eta AEKKo zuzendaria den Olatz Urdanpilletak esan digunez, "aurten nahiko xumea izango da, ikusita ostegunean pasako dela".

Korrika Txikia

Egunean bertan, ostegunean, Korrika Txikia egitea adostu da herriko ikastetxeekin. Goizeko 10:30ean hasiko da Zumaburu elizaren parean; Sasoeta auzora igoko dira, Donostia etorbideko sarreran dagoen errotondan buelta

eman, Pablo Mutiozabal kaletik sartu eta bukaera Okendon emango zaio. Korrika Txikia amatzerakoan haurrei esnekiak banatuko zaizkie edateko. Hainbeste korrika egin ostean eskertuko dute.

Okendon Amalur taldeak eta Jon Lasak girotuko dute ederki festa. Gainera Amarauneko laguntzoreen bat ere azalduko da haurrekin batera Korrika 16 ospatzera. 12:00ak aldera emango zaio haurren Korrika Txikiari amaiera.

Korrika Nagusia

Aurtengoan Urnietatik etorriko da Korrika, arratsaldeko 14:45ean. Lasarte-Oriak Mendiokerreko bidegurutzean hartuko du lekukoa. Herriko hainbat kale eta auzo zeharkatu ondoren eta lekukoa eskuz-esku ibili eta gero,

Zubietatik Usurbilera joango da Korrika. Gutxi gorabehera arratsaldeko 16:00etarako amaituko da korrika saioa eta seguruenik jendea bilduko denez, antolatzaileek zerbaitei beharra ikusten zuten eta erromeria antolatu dute. Sagardoa egiten saiatuko dira Okendon Otegi sagardotegiari esker, "eskerrek eman nahi diegu, zer-bait eskatzen diegun bakoitzean laguntzen baitute". Gero pintxo batzuen laguntzaz sagardo hori dastatzeko aukera izango da. Gero Amalur trikitixa eta pandero taldeak erromeria eskainiko du.

Ibilbide aldaketa

Aurten ibilbideak aldaketa batzuk izan ditu. Antolatzaileen esanetan, "errepide nagusia arriksutua da. Korrika iristean

babestua zaude eta udaltzainen edo ertzainen laguntza duzu, kotxeek abiatu moteltzen dute, baina lekukoa hartzen den lekua iluna da eta oso arriksutua da bertan egotea. Horregatik erabaki genuen menditik etortzea". Harrigarria bada ere, baina kilometro kopuru berdina egingo da. Korrikaren 16. edizioak 8 kilometro egingo ditu Lasarte-Orian.

Ziberkorrika

Olatz Urdanpilletak esan digunez, Korrikarekin batera beste zenbait lekutan korrika parekoak egiten omen dira. Bartzelonan edo, euskaldun talde bat omen dago beraien korrika partikulara antolatzen dutena, Irlandan ere egin izan da Dublinoan.

Aurten inork ez omen die deitu,

baina behin Irueñako auzoko batekoek deitu zieten hemendik Lasartetik Korrika pasatzen zen egunerako kilometroa erosteko. Orduan, lehenik korrikaren parte hartu, gero sagardotegiari aflatza eta azkenean hemen egin zuten parranda, Lasarte-Orian. Gauza bixiki lortzen ditut Korrikak!

Antzerkia eta erakusketa Jalgin

Baina Korrikako edizio hau ez da bukatuko Lasarte-Orian ostiralerako arte. Izan ere, Jalgi kafe-antzekian Kandido Uranga aktorearen emanaldia izango da. Orain txakurrek hagina egingo ditate antzezlan aularatuko du.

Aurreko edizioetan ohitura den bezala, aurten ere Korrika 16ko edizioaren argazkiak izango dira ikusgai Jalgin apirilaren 3tik 15a bitartean.

i. URRUZOLA
AROTZTEGIA

16. ongi etorri

EUSKARAREN ALDE !

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.

Oria etorbidea 4, behea
(Errekatzko jatetxearen ondoan)
Tel.: 943 371200 / 610 413131
LASARTE-ORIA

ANAIAK
JANTZI - DENDA

Udaberria
hemen dago !!

16. ongi etorri

EUSKARAREN ALDE !!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386

FISIOTERAPIA ZENTROA
Ibaiondo

16. ongi etorri

GU KORRIKAREN ALDE

Fisioterapia Masajeak
Errehabilitazioa Osteopatia

Ola Kalea, 12 - behea, ezk.
LASARTE - ORIA
Tel / Fax: 943 370 306 - fisisoiabando@gmail.com

Harategia • Urdaitegia

16. ongi etorri

NAROA PATXI LARRAÑAGA ANA IPARRAGUIRRE

GU KORRIKAREN ALDE !

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 372668 • Faxa: 943 370737

Ongi etorri euskarara

- Muntteri AEK euskaltegian badira euskaraz lehen urratsak ematen ari direnak.
- Marian Villenak Kordobatik etorri zenetik 35 urtera sentitu du ikasi behar duela.
- Mallorkako Calviako Ariadna Gómezek uste du euskara zaindu egin behar dela.
- Txileko Lilian Sanmartin asko harritu da hemen parte hartzeko dugun joerarengatik.

Kanpotik euskarara hurbiltzen direnen omenez Ongi etorri "euskaraz bizi nahi dugunon herrira" leloa aukeratu du Korrika 16k. Egun hauetan, ongi etorri beroa eskaini nahi zaie, euskaldundu nahi dutenei, horretan ari direnei eta euskara berreskuratzeko lanean parte hartzen duten guztiei. Horien artean dira Euskal Herrian bizi diren etorkinak ere eta guk kanpotik etorri eta euskara ikasten ari direnak ekarri ditugu orriotara: Muntteri, AEK-k Lasarte Orian duen euskaltegian ikasten ari diren hiru kanpotar, Mallorkako Ariadna, Txileko Lilian eta Kordobako Marian Villena. Ikasgelara sartu aurretik gure galderei txintxo-txintxo erantzun diete.

"Euskaldunok ongietorria egiten diegu gure herrira, gure etxera, gure artera datozen lagunei. AEK-k berdin egin nahi du Korrika 16rekin: ONGI ETORRI! handi bat luzatu nahi die euskararen berreskurapenean lagundu behar duten erakunde guztiei, euskalgintzan dabiltzan guztiei, euskaltzale guztiei, euskaldunei eta euskaldundu nahi duten guztiei, bertokoei eta kanpotik datozenei". Hau da Korrika 16 honetan antolatzaileek zabaldu duten mezua.

Egia esan estimatzeko eta eskertzeko da etorkinek euskarara hurbiltzeko egiten duten ahalegina.

Sekula ez da berandu

Marian Villena andaluziarra- ren kasua berezia da. 44 urte ditu eta duela 37 urte heldu zen Euskal Herrira Kordobako Priego herrixkatik. Umea zela iritsi zen, beraz; aurretik aita etorri zen lanera eta haren aurretik honen anaiak, bere osabak alegia.

Hemen 35 urte bizi eta



Muntteri euskaltegian euskara ikasten lehen urratsak ematen ari direnak, Oier irakaslearekin.

Maite

BETELU



GU EUSKARAREN ALDE!



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliariako zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzaren administrazioa**



Aralar plaza 4 eta 6, behea • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 364886 • Faxes: 943 372117



DAKARA

JATETXEA

Espezialitatea hostopiletan
Ogitartekoak
Razioak
Entsaladak

**Eguneko menua
astartetik ostiralera**

ETORRI DASTATZERA

Kale Nagusia 8 behea • Lasarte-Oria 20160

ETORKINENTZAT

BERTSOA

Ane Labaka
Lasarte-Oriako
bertsolari gazteak
bertso bat eskaini die
euskara ikasten ari
diren etorkinei.
Aurkezpen galan
kantatu zen bertso hori
ere ekarri nahi dugu
orriotara.

Nongoa zara? Non jaio zinen?
galdetu gabe inorri,
ahaztu ditzagun azal kolore,
erlijio ta jatorri.
Euskal mundura iritsi zinen
heldu iezaiozu horri,
gurea eta zurea dugun
mundura ongi etorri,
mundura ongi etorri.

Ane Labaka



Korrika 16ren aurkezpen galan Unai Muñoz eta Ane Labaka aritu ziren bertsoan. Ondoren Ane Labakaren bertsoa abestu zuten bertso lari eta ikusleek.

gero, duela hiru urte hasi zen euskara ikasten, Marianek berak aitortu digunez: "Sentitu egin nuen euskara ikasi behar nuela. Hori esaten diot neure buruari eta horixe esaten dut, 35 urte behar izan ditudala hori sentitzeko, maitatzeko eta amorrue ematen dit, aurretik ere hasi nintekeelako".

Hirugarren urtea du Marian Villenak euskara ikas-

ten, AEKn hasi zen, gero Udal Euskaltegian egon zen eta berriro itzuli da AEK-ra, Munterri euskaltegira.

Ikasketa prozesua zaila

dela dio, "zaila bai baina ez dut ezinezko ikusten, ezer ez da ezinezkoa eta ea lortzen dudana. Saiatzen naiz, ez agian nahiko nuen beste,

baina denbora eskainiko diot, saiaturia, tematia izan behar da".

Erizain laguntzailea da eta lantokian euskara erabiltzeko

“ *Marian Villena: “35 urte behar izan ditut euskara ikasi behar nuela sentitzeko, eta amorrue ematen dit, aurretik ere hasi nintekeelako”.* ”

aukera du. "Gaizki edo ondo aritzen naiz Zaharren Etxean" esan digu.

Dena den, laneko presio-rik ez du izan ikasteko: "ez naute derrigortu lanarengatik eta gainera erizaintzako sindikatuak aspalditik aritu gara euskarazko klaseak eskatzen. Baina eskatzen genuen langile kopuruaren menpe zegoen eta ez ginen asko. Nik beharra sentitu nuen eta euskategira jo nuen orduan. Euskara ikasten hasi eta mutil euskaldun batekin ere hasi naiz. Jakin izan banu agian lehenago hasiko nintzateke. Horrelakoa da bizitza" kontatu digu.

Marian Villenaren iritziz Ongi Etorri leloa "egokia eta egungoa" da, "bizi dugun egoerari dagokiona. Lehenago ere erabil zitekeen, ez da eta berria, etorkin batzuk aspalditik gaude hemen, baina ondo dago". Badaki zer den korrika, baina ez du sekula aktiboki parte hartu eta aurren beste era batera biziko du, noski.

Katalana eta euskara

Ariadna Gómez, aldiz, duela urtetardi iritsi zen Mallorkatik Lasarte-Oriara, eta ordutik euskara ikasteko ahaleginean dihardu. Berak argi du "Mallorkakoa izanik, han katalana ere hitz-egiten da, beraz, nik gaztekeraz aparte beste ama hizkuntza bat ere izan dut eta uste dut hizkuntzak zaindu egin behar direla. Euskara hemengo hizkuntza da eta zaindu egin behar da".



GU EUSKARAREN ALDE!



ASEGURUAK
Ges

Kalitatezko zerbitzua da
gure lanaren arrazoia

- Etxeko aseguruak
- Kotxeak
- Dendak
- Istripuak
- Erretiroak
- Enpresak
- Bizitza-aseguruak...

Pablo Mutiozabal kalea 2 • Tel.: 943 365899/943 368575 • cristina_arteaga@ges.es • LASARTE-ORIA

M. Berasategi

Kafeak



Beti dago aukera
kafe on bat hartzeko



INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erh)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK

- MELISA, TILA,
- KAMAMILA, MENTA,
- SAGARRA, ANIXA,
- MAKILGOXO, ROOIBOS,
- e.a...

KAFE ARABIKOAK

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA



GU KORRIKAREN ALDE!



Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316
LASARTE-ORIA

Calviá Mallorkako herrikoa, 27 urterekin bere bizitzari beste norabide bat eman dio. Bikotea hemengoa du eta Ariadnaren helburua euskara ikastea da: "Espero dut egunen batean hitzegino dudala". Inguruan badu gero norekin aritu, baditu inguruan euskaldunak, bere bikote eta haren familiarengandik hasita.

Ondo iruditzen zaio, korrikaren leloa, bera bezalakoei "ongi etorria" ematearena. Orain jakin du zer den korrika, "azaldu didatelako eta irratian entzun edo telebistan ikusi dudalako. Oso ondo dago, euskara jendearengana hurbiltzeko beste modu bat da" Ariadnaren iritziz. Dena den, hitz egitea kostatzen zaio gehiena, Ariadna berak azaldu digunez, momentuz "hori da zailena, batez ere, lotsarengatik, gaizki egitearen beldurrez lotsa handia ematen didalako".

Irakurri errazago egiten omen du, hala ere, euskara ikasteko hizkuntza zaila dela esan digu euskaltegian: "euskarak ez daukalako gaztelera edo katalanak duten jatorri berbera" baina "lasai hartu behar da" dio irrifarrea galdu gabe.



Lana eta euskara

Ingrid Lilian Sanmartin txiletarra Marian eta Ariadnaren gela berean ari da euskarazko lehen ikasgaiak hartzen. Hirurek erabaki dute euskara ikastea, baina ez da kasu eta egoera berbera. Ingrid baka-rrik etorri da eta bi arrazoi eman ditu euskara ikasteko, batetik lana lortzeko edota bertakoekin komunikatzeko beharrezkoa delako eta bestetik edozer ikastea delako bere zaletasun nagusia.

Hala ere ez da erraza lana eta ikasketak uztartzea. 41 urteko emakume bizi hau 2006 otsailean heldu zen Donostiara Temuco Txileko hiritik eta bi hilabete eta erdian oinarritzko ikastaro batean aritu zen, "eguneroko gauzekin lotutako gauzak ulertzen hasteko, baina ordu-tegiengatik ezin izan nuen segi eta zorionez aurten Lasarte-Oriann bertan AEK-ko euskaltegian iluntzetan euskara ikasteko aukera izan dut".

Ingridrek esan digunez, gustura ari da euskara ikasten, "batetik beharrezkoa delako, lana lortzeko edota ingurukoekin harremanetan jartzeko baina bestetik baita edozer dela

HARATEGIA

BALERDI

URDAITEGIA



**Nagusia 50, behea
Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 36 11**





Ariadna Góñez Mallorkako eta Ingrid Lilian Sanmartin Txilekoak lehen aldiz hartuko dute parte Korrikan.

ere, ikastea nire zaletasunetako bat delako".

Zailtasunei aurre egiten dien emakumea da, zalantzarik gabe: "Hemen agian nire izaerarengatik beste batzuei baino gutxiago kostatu zait gauza berrietara ohitzen baina zailtasun asko gainditu behar dira; hala ere gustura nago".

Irakasle dinamikoa

Lasarte-Oria ko AEKren eskaintza goraipatu du, eta euskaltegian oso pozik dagoela esan digu, "oso irakasle dinamikoa tokatu zaigu. Izan ere ez da erraza egun guztian lanean pasa eta gero, nekatuta, euskaltegira etorri eta euskara ikastaroan adi izatea. Ikaskideak ere jatorrak dira eta oso pozik nago".

Euskara ikasteko interesa badu Lilianek, baina zaila egiten zaio, denbora asko ere ez duelako. "Zaila da oinarri bat eduki bitartean, lexikorik ez dut oraindik ez dut ia euskarazko hitzik ezagutzen, baina denbora pasa ahala hobeto dihardut. Ez dut denbora libre askorik gainera, etxean ikasiko dut esateko. Zailena, esaldien ordena, aditzak, ... dena gaztelerarekin lotu behar dut. Baina iritsi nintzen garaiarekin alderatuz asko aurreratu dut" esatean argi erakutsi zion bere zintzotasun eta bere baikortasuna.

Haurrak zaintzen ditu txiletarrak eta horiekin jada hasi da erabiltzen: "Dakidana erabiltzen dut eta zerbait gaizki esaten badut zuzendu egiten didate gainera".

Txiletetik atera eta Euskal Herrira etortzeko bi arrazoi aipatu zizkigun, batetik aukera izan zuelako atera zen, eta bestetik toki berriak ezagutzeko zuen gogoarengatik: "zer-gatik ez dakit baina txikitatik uste nuelako zorientasuna Txiletetik kanpo izango nuela". Eta hemengo zenbait gauzek harritu egin dute.

Egunkarian ikusi du zer den korrika, ez du ezagutzerik izan, baina polita iruditzen zaio. Liluratu zuten gauzako bat horixe da, "oro har, hemen jendeak edozertan parte hartzeko duen joera, zaharrenetik hasi eta txikienera, denak".

Euskara ikasten ari direnei ongi etorri esatea, Korrikarren leloa polita iruditzen zaio. "Atsegina da kanpotik datorrenari ongi etorri goxoa eskaintzea". •

Fernández
e h u n a k




KORRIKAREN ALDE!

Nahi edo
behar duzun
huraxe
aurkituko
duzu gurean!



Kale Nagusia 2 • Tel.: 943 361607 • LASARTE-ORIA

EUSKARAZ BIZI!




ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi kalea 3 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 361278

**ETXEZARRETA
HARATEGIA**



GU KORRIKAREN ALDE!



Hipodromo etorbidea 2 • Tel.: 943 361379

LASARTE-ORIA

kima

Goyo Martin
Xabier Carbayeda

masaje-lekua



EUSKARAREN ALDE!



Kale Nagusia 44 • Tel.: 943 366197 • LASARTE-ORIA

Egunero

Erakusketa

Angel Nuñez donostiarraren Paisaia begiralea argazki erakusketa ikusgai egongo da apirilaren 3ra bitartean. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.



Ostirala 3

Erakusketa

KORRIKA 16 edizioak herrian utzitako irudiekin argazki erakusketa izango da apirilaren 3tik 15era bitartean Jalgin kafe-antzokian.

Osteguna 16

Zinea

ESTOMAGO filma izango da ikusgai Okendo Zinema Taldearen eskutik. Manuel Lekuona Kulturetxean 21:30ean.



Euskarazko antzerkia Jalgin Kandido Urangarekin

TXAKURREK HAGINKA antzezlanaren Pedro Alberdiren Orain txakurrek haginka egingo didate liburuan dago oinarrituta. Hiru zatitan banatzen da antzezlanaren; lehenbizi liburua irakurketa txiki bat egingo da, gero pertsonaien elkarriketa bat egongo da eta azkenik 14 minutuko road movie bat. Ekitaldi honekin amaiera ematen zaio Korrika 16ko ospakizunei Lasarte-Orian.

OSTIRALEAN, JALGI KAFE-ANTZOKIAN
22:30EAN

Erakusketa

XI. JARDUNALDI INTERNAZIONALISTAK direla eta Enrique Pimoulier argazkilaria Beste aldetik begiradak izeneko erakusketa jarriko du Jalgin hilaren amaiera arte.



Larunbata 18

Kontzertua

MAKULU KEN taldeak kontzertua eskainiko du XI. Jardunaldi Internazionalisten barruan Jalgin kafe-antzokian 22:30etik aurrera.



Eskutitzak

CCOO, ELA eta UGTk bigarren EEE-a sinatu dute

Martxoaren 24an aipatu 4 sindikatuak enpresako zuzendaritzarekin akordioa erdietsi dute lan delegaritzan, EEEa onartzeko, ondorengo baldintzetan:

-Enplegu Erregulazio Expediente honek aurreko bat ordezkatzen du, eta Apirilaren 1tik Abenduaren 31ra aplikatuko da.

-Enpresak soldatak %77,5n osatuko ditu, aurreko EEEak %90an osagarritzen zuen arren. A salarios.El primer expediente contemplaba hasta un 90%.

-Errelebu kontratua egiteko baldintzak okertzen ditu.

LABek ez du akordio hau sinatu, eta oso txarra dela iruditzen zaigu. Halako neurri gogor bat onartzekotan, etorkizunari begirako berme batzuk lortzea ezinbestekotzat jo genuen.

Aldatu dituzten baldintza kaskarrez gain, EE aren negoziaketaren baitan ez da inolako konpromezurik Portu enplegua mantentzeko.

LABek idatziz eta ahoz lehen aipatu konpromezua jasotzen zuen idatzia aurkeztu genuen, bai enpresa batzordearen gehiengoak eta zuzendaritzak baztertu egin zuten gure proposamena.

Baita ere, salagarria iruditzen zaigu Lan Delegaritzaren jarrera, ez gaitetik akordioa bilatu baitu, eta aldi baterako neurria dela onartu arren ez duelako ezer jakin nahi izan enplegua mantentzeko buruz.

Hortaz, enpresari gastuen murrizketa hutsa suposatzen duen EEE bat onartu dute, enplegua deusezteko aukera erabat zabaldua utziz, etas hortaz, gure kezka azaldu nahi dugu enpresak etorkizunean har ditzakeen neurrien inguruan.

Beste behin ere enpresaren krisia langileen kontura.

LAB sindikatua

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irrati programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Odol ateratzeak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Loidi barrenen dagoen Osasun Zentro berrian arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Herriko odol emaileen delegazioak herritar guztiak animatu nahi ditu odola ematera, odola ordezkatzeko, gainera istripuak eta ebakuntzak medio odol falta dago!

Korrika 16

Korrika 16a Lasarte-Oriatik apirilaren 2an pasako dela eta, nahi duen guztiak Km-a lor dezake laguntza baten truk. Interesa duzen talde, erakunde edo besteren batek Munterri AEK euskaltegia dei dezake edo bertara jo dezake. 943 37 28 63.

Materiaia salgai

Korrika 16ko materiaia eta arropa salgai dago dagoeneko Munterri-AEK euskaltegian eta Urruzola mertzerian.

Kolon minbiziaren proba

Lasarte-Oriako Osasun Zentroak eta Donostia Ospitaleak doan eskaintzen ari dira kolonoko minbiziaren antzemateko goiztiarrerako proba bat 50 eta 69 urte arteko emakume eta gizonezkoen artean. Hauei guztiak probarako gonbidapen pertsonala bidaliko zaie postaz.

Udaletik proiektu honetan parte hartzea animatzen zaituztegu, izan ere, garrantzitsua iruditzen zaigu kolonoko minbiziaren antzemateko eta prebenitzeko.

Begirale izateko

Txakunek udaran antolatzen dituen udaleku ezberdinetan (txokoak, kanpaldiak...) begirale izateko izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 15a arte. Interesatuak Txakunetik pasa (Geltoki kalea 4), telefonoz deitu: 943 371448 edo mezua bidali: aisia@ttakun.com.

Galdutako txaketa

Martxoak 20ean marrazki beltzdun txaketa gris bat galdu nuen Beko Errota edo Kale Nagusia inguruan. Norbaitek aurkitu badu itzultzea eskertuko nioke. Harremantarako zenbakiak, 620 071 384 eta 943 370 438 (Maite)

Alboka abesbatzaren asanblada

Alboka Abesbatzak jakin arazten du, martxoaren 30ean astelehena, urteroko asanblada egingo duela Arantzazuko Amabirjinaren eliza azpiko lokalean. Lehenengo deialdia 19:30etan izango da eta bigarrena 20:00etan. Bazkide eta abeslariak erregutuz gero zaitu puntual iristea.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz
txintxarri@ttakun.com
helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

LUIS CAR

autobusak

GU KORRIKAREN ALDE !

16.
ongi
etorri



- Espainiako eta nazioarteko garraio-zerbitzuak.
- Enpresentzako, ikastetxeentzako...zerbitzuak.
- 15 plazako microbusak.
- 55 plazako autocarrak.
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.

Uzturre plaza 1 Tel./faxa:943366316 Mobila: 629461897 LASARTE-ORIA



KAFE-ANTZOKIA


16.
ongi
etorri

GU ERE KORRIKAREN ALDE !!



GELTOKI KALEA 4 BEHEA • LASARTE-ORIA •

Tel.: 943 377024



IZARRA
BITXITEGIA

16.
ongi
etorri

KORRIKAREN ALDE!



www.izarrabitxitegia.com

IPARJOY[•] A.I.E.



Geltoki kalea 19, tel.: 943 371384 • Juan XXIII.a plaza, z/g, tel.: 943 364945